

# COVID-19 NEWSLETTER

India 2020/06/03



## INPAKTU EKONOMIKOA

### Makro datuak

BPGaren bilakaeraren aurreikuspena 2020an % 0,0 eta % 5,0 bitartean	Inflazioa gaur egun % 6,7 2020rako aurreikuspena: % 4,1
Zerbitzuetako / Industriako PMI indizea apirilean (maiatza) 5,4 / 27,4 (30,8)	Langabezia % 23,48

### Inpaktua sektore industrialetan

Industriako PMI zerbitzuetakoa baino gutxiago jaitsi da, elikagaien eta farmaziako produktuen eskaeragatik


- Automozioa**  
OEM guztiek jarri dituzte martxan beren lantegietako batzuk
- Diamanteak eta bitxiak**  
Produkzioa etenda dago diamanteak leuntzeko tailerretan
- Energia**  
Argindar kontsumoa % 14,3 jaitsi da maiatzean. Petrolio eta diesel kontsumoa % 31 gutxitu da maiatzean

### Inpaktua zerbitzuetan

- Ostalaritza sektorea eta entretenimendua**  
Hotel eta jatetxeek irekitzeko baimena izango dute ekainaren 8tik aurrera, baina taberna eta antzokiek itxita jarraituko dute
- Burdinbideak**  
Zerbitzua martxan dago ekainaren 1etik

### Inpaktua finantza sektorean (merkatuak, bankuen sektorea)

- ❖ **Interes-tasak: % 4,0rainoko murrizketa** (% 5,15etik)
- ❖ **Merkatuak: S&P BSE 30 indizea: % -19,0** (urte hasieratik hona, 2020/06/02an)
- ❖ **Maileguen kuotak 6 hilabetez atzeratu** ahal izango dira; ETEek ez dute interesik ordaindu beharko
- ❖ **Indiako gobernuaren ordainketa-bermea** duten maileguak ETEentzat



## EUSTE-NEURRI EKONOMIKOAK

### Neurri fiskalak

- ❖ Diru transferentzia zuzenak egingo dira nekazari eta langabetuen kontuetara
- ❖ Bankuetan eskudirua erreserbatzeko ratioa % 1 murriztuko da likidezia gehiago izateko
- ❖ 5 milioi errupia (70.000 euro) osasun-asegurua osasun arloko profesional guztiak estaltzeko Covid-19agatiko heriotza kasuetan

### Finantzaketa pribatua eskuratzea (erakundeak eta beste batzuk)

- ❖ Zailtasunak dituzten pertsona eta enpresek 6 hilabete atzera ditzakete hipoteken ordainketak
- ❖ Kooperatibek 2 milioi errupiarainoko (24.000 euro) bermerik gabeko maileguak kudeatuko dituzte emakumeentzat

### Lan-indarra

- ❖ **Langileak:** Gobernuak ordainduko ditu gizarte segurantzako kuotak eta pentsioak, hilean 15.000 errupia (200 euro) soldata mugarekin (6 hilabetez)



## MUGAK

### Zerbitzu logistikoak eta barneko garraioa

- ✓ Merkatu-gaien garraioak berdin jarraitzen du lanean
- ✓ Herrialde barneko hegaldiak operatzen ari dira maiatzaren 25etik eta tren zerbitzuak ekainaren 1etik aurrera abiaraziko dira

### Biztanleriaren mugikortasuna

- ✚ Derrigorrezko itxialdia egunero, 21:00etatik 5:00etara. Metroko zerbitzuak geldirik daude
- ✘ Eskola eta unibertsitateak itxita daude
- ! Etxetik ez ateratzea gomendatzen da, guztiz beharrezkoa izan ezean

### Mugetako egoera

- ✚ Mugak zabalik daude (portuak eta aireportuak), baina bakarrik **ondasunen mugimendua ahalbidetzeko**  
Bakarrik aineratu daitezke herrialdeek euren herritarrak aberriratzeko antolatu eta pleitatutako hegaldiak  
Gobernuak hegaldiak antolatu ditu 31 herrialdetatik, harrapatuta geratu ziren 200.000 indiar ebakuatzeko